



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENSA-OHARRA

Enkarterrietako Museoak amaitu dauz Abellanedako Juntetxeko XVII. mendeko armarriaren zaharbarritze-lanak

Abellaneda, 2012ko zemendiaren 28a.

Bi hilabete eta erdiz lan handia egin ostean, Abellanedako lehengo Juntetxearen aurrealdea apaintzen dauen armarría eder-eder dago Enkarterriko jaunak alkartzen ziran eraikinaren sarreran. Ia 400 urte geroago –1635ean ipini zan–, zaharbarritze-lanei esker, armarríak bere jatorrizko itxurea hartu dau ia-ia. Enpresa espezializau batek egindako konponketa-lanen ondorioz, lehendik egozan elementuak bere horretan mantendu dira eta degradazio-prozesuak geldiarazo egin dira; gainera, eraikuntza-elementuetako batzuk berreskuratu dira, eta harria prestatuta itxi da, narriadura handiagoa euki ez dagian.

Hiru metro koadro inguruko blasoia zaharbarritzeko prozesuan, harri osoa goitik behera garbitu da, euskarria modu kimikoan egonkortu da, jausitako piezak berriripini dira, eta arrakalak eta pitzadurak mikrozigilatu egin dira. Azkenik, multzoari sendotasuna emoteko, teknikariek babesa aplikau deustie harlanduei eta morteroari; horretarako, nanopartikulen teknologian oinarritutako tratamendu hidrofugantea erabili da, harria eguraldi txarretik babestuko dauen geruzea sortu ahal izateko.

ERAIKINAREN ETA ARMARRIAREN JATORRIAK

Abellanedako Batzar Nagusien gaineko lehenengo aitamena 1394koa da. Sasoi haretako zita batek dino batzarrak askoz be lehenagotik egiten zirala. Lehenengo batzarra noz egin zan zehaztea ezinezkoa bada be, historialarien arabera, batzar horreek hainbat mende lehenagotik egiten ziran, Enkarterrien (Incartationis) gaineko lehenengo aitamena 1175ekoa da eta.

Antzinako batzar hareek, ziurrenik, kanpoan egiten ziran, haretx baten inguruan. Haretx ha zehazki non egoan ez dakigu, baina adituek dinoe Abellanedako gaur eguneko Juntetxearen eraikinetik hur egongo zala. Batzar hareetara Enkarterriko kapare edo bandokide nagusienak joaten ziran, batzuetan euren jarraitzaileakaz batera.

Aro Modernoaren hasieran, 1500. urtearen inguruan, Batzar Nagusietara joateko modua erregularizau egin zan, eta kontzeju edo haran bakotxetik ordezkari bat joaten hasi zan. Azkenik, XVI. mendearen amaieran, eraikin berezi bat eregitea erabagi zan, eta etxetzar baten forma emon jakon; hain zuzen be, itxura hori euki eban hainbat mendez. Horren ostean, beste obra handi bat egin zan 1623-35. urteen artean, eta, amaitzeko, 1635eko data daukan armarrí



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

ikusgarria ipini zan bertan. XX. mendeko hurrengo zaharbarritze-lanek zintzotasun handiz errespetau dabe armarri hori, gaur eguneko zaharbarritzera heldu arte.

Armarria bi kuarteletan dago bananduta. Ezkerrekoak Gaztelako armak erakusten dauz –almenadun bi gaztelu, atzaparrak altxatutako lehoiakaz–, eta eskumakoak, barriz, Bizkaikoak, XVI. mendetik XIX.era bitartean erabilitako ikonografia klasikoagaz: haretza, eta ahoan bildotsak daroezan otso bi. Urrezko Ardi-larruak inguratzen dau dana. Ardi-larru hori kate luze batez dago osotuta; beheko aldean, monarkiaren sinboloa dan bildotsa ikusten da, eta, goian, kondearen koroa.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

El Museo de las Encartaciones concluye la restauración del escudo de la Casa de Juntas de Abellaneda del siglo XVII

Abellaneda, 28 de noviembre de 2012.

Tras dos meses y medio de intensos trabajos de restauración, el escudo que adorna la fachada de la antigua Casa de Juntas de Abellaneda luce resplandeciente sobre la entrada del edificio en donde se reunían los señores de Las Encartaciones. Casi 400 años después – se colocó en 1635 – el escudo ha recobrado prácticamente su apariencia original. Los trabajos de mejora realizados por una empresa especializada han servido para conservar los elementos existentes y paralizar el proceso de degradación que sufría desde hace tiempo, así como para recuperar algunos elementos constructivos y preparar la piedra con el fin de evitar un mayor deterioro.

El proceso de restauración del blasón de unos tres metros cuadrados, ha consistido básicamente en una limpieza minuciosa de toda la piedra, una consolidación química del soporte, la reposición de piezas desprendidas y el microsellado de fisuras y grietas. Finalmente, para consolidar el conjunto, los técnicos han aplicado una protección a los sillares y el mortero mediante un tratamiento hidrofugante basado en tecnología de nanopartículas para crear una capa que proteja la piedra de las inclemencias del tiempo.

ORÍGENES DEL EDIFICIO Y EL ESCUDO

La primera mención a las Juntas Generales de Abellaneda se remonta a 1394. Una cita de aquella época nos señala que las asambleas se celebraban desde tiempo atrás. Aunque es imposible precisar cuándo fue la primera junta, los historiadores remontan la existencia de estas reuniones a varios siglos antes, ya que la primera mención a Las Encartaciones (Incartationis) se sitúa en 1175.

Estas primitivas juntas debían celebrarse en el exterior, en torno a un roble del que se desconoce su ubicación exacta aunque los expertos creen que debió estar muy próximo al actual edificio de la Casa de Juntas de Abellaneda. A ellas, acudían los principales hidalgos o banderizos de Las Encartaciones acompañados en ocasiones por sus fieles.

Ya a principios de la Edad Moderna, en torno a 1500, la asistencia a las Juntas se regularizó enviando cada concejo o valle un representante. A finales del siglo XVI se decide construir un edificio singular en forma de gran caserón. Posteriormente, se realizaría una segunda gran obra, entre 1623-35 que culminaría con la instalación del espectacular escudo que luce la fecha de



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

1635. Las posteriores reparaciones han respetado escrupulosamente este escudo hasta su restauración actual.

El escudo se divide en dos cuarteles. El de la izquierda recoge las armas de Castilla, -dos castillos almenados con leones rampantes- y el de la derecha las de Bizkaia, añadiendo la clásica iconografía usada entre el siglo XVI y el XIX: el roble y dos lobos con un cordero en la boca. Todo ello está rodeado por el Toisón de oro, compuesto por una larga cadena que remata en su parte inferior en un cordero, símbolo de la monarquía y rematada en la cumbre con una corona condal.